Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 4a, osteguna — 42 — Jueves, a 4 de marzo de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

2021eko otsailaren 18an Alkateak emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udalak 2021 urterako ezarri dituen diru-laguntza programen deialdi irekia arautuko dituzten oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen dira:

*Gazteendako alokairu sozialaren dirulaguntzak emateko oinarriak.*

*1. artikulua. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da alokairu gastuei aurre egiteko dirulaguntzak ematea gazteei etxebizitza alokatu dezaten, euren emantzipazio bidean laguntzeko eta etxebizitza alokairua sustatzeko.

*2. artikulua. Aurrekontua.*

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 35.000 eurokoa da, eta «Gazteen etxebizitza alokairuak laguntza programa» diru-partidaren kontura finantzatuko da (1 3500.480.152.30.01 2021 (561).

Eskaerak onartuko dira dirulaguntza honetako baldintza guztiak betetzeaz gain, diru-izendapena agortu gabe balego. Lehentasuna sarrera-zenbakiaren arabera finkatuko da.

*3. artikulua. Eskatzailearen baldintzak.*

Laguntza hauek jaso ahal dituzte oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, ondorengo baldintza zehatzak beteko dituzten pertsonak:

a) 18 eta 30 urte (biak barne) bitarteko adina izatea eta Bergarako udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat alokatzea.

b) Etxebizitza baten jabari osoaren edo erabiltzeko eta gozatzeko eskubidearen titularra ez izatea, baldin eta ez badu egiaztatzen banantze- edo dibortzio-arrazoiengatik eskuragarri ez duela edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste arrazoiren batengatik ezin duela bertan bizi.

c) Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetza-unitateko pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira, alokairu kontratua sinatu ostean, eta datu hau dirulaguntza jaso baino lehen egiaztatu beharko dute. Dirulaguntzak jasotzen dituzten bitartean dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egon beharko dira. Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxe bizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

d) Gutxienez eskatzailearen bizikidetza-unitateko pertsona bat Bergarako herrian erroldatua egon izana gutxienez 10 urtetan, nahiz eta era ez jarraituan izan, edota azken 2 urteetan etenik gabe, eskaera aurkezteko unean.

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

Mediante Decreto de alcaldía de fecha 18 de febrero de 2021, se han aprobado las bases que rigen la convocatoria abierta de los programas de subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Bergara, por lo que se procede a su publicación:

*Bases para la concesión de subvenciones de alquiler social para jóvenes.*

*Artículo 1. Objeto.*

Constituye objeto de las presentes bases la concesión de subvenciones a personas jóvenes a fin de que puedan acceder al alquiler de una vivienda, apoyándoles en su proceso de emancipación y promoviendo el alquiler de viviendas.

*Artículo 2. Presupuesto.*

La cuantía de las subvencionas convocadas mediante este programa asciende a 35.000 euros, que se financiarán a cuenta de la partida económica denominada «Gazteen etxebizitza alokairuak laguntza programa» (Programa de ayudas al alquiler de viviendas para jóvenes: 1 0500.480.152.30.01 2021 (561)).

Las solicitudes serán admitidas siempre que, además cumplir la totalidad de requisitos de la subvención, no se haya agotado la consignación económica. La prioridad se establecerá de acuerdo con el número de entrada.

*Artículo 3. Requisitos de las personas solicitantes.*

Podrán optar a estas ayudas las personas que a la fecha de publicación de las presentes bases y durante el periodo subvencionable cumplan los siguientes requisitos específicos:

a) Tener una edad entre 18 y 30 años (ambos inclusive) y alquilar una vivienda en el municipio de Bergara en régimen de alquiler como residencia habitual.

b) No ser titular del pleno dominio o de un derecho de uso y disfrute sobre alguna vivienda, salvo que se acredite la no disponibilidad de la misma por causas de separación o divorcio, o no puedan habitarla por cualquier otra causa ajena a su voluntad debidamente acreditada.

c) Todas las personas que forman parte de la unidad convivencial del solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato, cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda. Durante el periodo en que estén percibiendo las ayudas, deberán estar empadronadas en la vivienda por la que se recibe la subvención. Así mismo, en caso de que haya personas, no titulares del contrato, empadronadas en la vivienda con fecha anterior al inicio del contrato, las personas titulares del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo subvencionable.

d) Que al menos una de las personas integrantes de la unidad convivencial conste como empadronada en el municipio de Bergara durante al menos 10 años, aunque no haya sido de manera continuada, o bien durante los dos últimos años sin interrupción en el momento de presentar la solicitud.

EK\CV GAO-I-2021-01232

e) Diru-sarrerak tarte hauen barruan egon beharko dira: 7.455,14 28.000 euro gordin bizikidetza-unitatea pertsona bakarrak osatzen badu; edo 7.455,14 39.000 euro gordin bizikidetza-unitatea pertsona bik edo gehiagok osatzen badute. Kontuan hartuko diren diru-sarrerak 12 hilabete jarraituko diru-sarrerak izango dira, betiere eskaera egin aurreko azken 12 hilabetekoak edo/eta eskaera egin ondorengo 12 hilabeterakoak agiri bidez behar bezala ziurtatuta badaude.

f) Diru-sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.

g) Bizikidetza-unitateko kide guztiek Bergarako Udaleko zerga, tasa eta zehapenen ordainketak egunera izan behar dituzte.

h) Onuradunaren eta alokatzailearen artean ezin izango da inolako familia loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

i) Etxebizitza-alokairuaren prezioa, gehienez, hileko honako hau izango da, kokalekuaren arabera, eranskinak barne:

e) Los ingresos deberán oscilar en un intervalo entre 7.455,14 y 28.000 euros brutos para unidades convivenciales de una sola persona, o entre 7.455,14 y 39.000 euros brutos para unidades convivenciales de dos o más personas. Se tendrán en cuenta los ingresos económicos de 12 meses consecutivos, siempre que se acrediten documental y fehacientemente los ingresos de los últimos doce meses anteriores a la solicitud o los de los 12 meses posteriores a la misma.

f) En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido no podrá superar en su conjunto la cifra de 601,10 euros anuales.

g) Todos los miembros de la unidad convivencial deberán estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Bergara.

h) Entre la persona beneficiaria y la arrendadora no podrá existir vínculo familiar, por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado.

i) El precio del alquiler de la vivienda será como máximo y por mes el siguiente, en función de su ubicación, e incluidos sus anejos:

| | |
|---|---|
| Herrian orokorrean (Azpian aipatutako guneetan izan ezik) | 600 € / hileko |
| Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta eta Ola-ko hiri-lur guneak (Eranskinetako 1 eta 2 planoetako eremuan sartzen diren etxebizitzak - Eremu gorriaren barruan daudenak) | 550 € / hileko |
| Osintxu (Hiri-lur gunea). | 450 € / hileko |

| | |
|---|---|
| En el municipio en general (excepto en las áreas indicadas abajo) | 600 € / mes |
| Casco Histórico y ámbitos de suelo urbano de Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta y Ola (Viviendas incluidas en la zona marcada en rojo en los planos 1 y 2 de los anexos). | 550 € / mes |
| Osintxu (ámbito de suelo urbano) | 450 € / mes |

j) 38/2003 legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere ez egotea.

k) Betebehar fiskaletan egunean egotea.

l) Eskaera egin aurretik titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.

Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta alokairu kontratua denek sinatzen badute eta gainontzeko baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu honetan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea dela ulertuko da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Dirulaguntza hauei dagokienez, bizikidetza-unitatetzat hartuko da adinez nagusiko pertsona bakar bat edo bikote bat –kide biak adinez nagusikoak– eta kargura izan ditzaketen adin txikikoak eta baita etxebizitza horretan bizi den beste edonor ere.

*4. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.*

1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Bergarako udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun-baimena izan beharko du.

2. Etxebizitzak gutxienez ondorengo bizigarritasun-baldintzak bete beharko ditu:

j) No estar incursos/as en ninguna de las circunstancias impeditivas contempladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

k) Hallarse al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias.

l) Hacer valer todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder, con carácter previo a la solicitud, a dicha persona o a cualquiera de los miembros de su unidad convivencial.

Pueden ser beneficiarias todas las personas jóvenes que comparten la vivienda, siempre que el contrato de alquiler esté firmado por todas ellas y cumplan el resto de requisitos exigidos. En este caso, se entenderá que cada solicitante constituye una unidad convivencial independiente, computándose la renta mediante prorrateo entre todas las personas que tienen suscrito el contrato.

Respecto a estas subvenciones, se considerará como unidad convivencial a una persona sola mayor de edad o a una pareja –siendo ambos mayores de edad– y a los/as menores que puedan tener a su cargo, así como cualquier otra persona que resida en la vivienda.

*Artículo 4. Requisitos que han de cumplir las viviendas.*

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Bergara y contar con la correspondiente licencia de habitabilidad.

2. La vivienda deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:

EK\CV GAO-I-2021-01232

a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektrikoa edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.

b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.

c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.

d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volt-eko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

e) Iturriko ura izatea.

f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua. Hala ez bada, zergatia justifikatu egin beharko du.

g) Kalerako aireztatzea.

h) Bizikidetza-unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat.

Hirigintza Saileko teknikari batek baldintza horiek betetzen direla adierazteko txostena egingo du. Txosten hori egiteko, teknikariak edozein momentutan etxebizitza ikuskatzeko aukera izango du horrela baloratzen badu.

Etxebizitzak bete beharreko baldintzetan aldaketa nabarmenik balego, onuradunak jakinarazi egin beharko dio udalari hilabete bateko epean, aldaketa gertatzen denetik.

*5. artikulua. Baztertzeak.*

Ez dira dirulaguntzaren onuradun izango azpian jasotako egoeraren batean dauden etxebizitzak edo alokairu kontratuak edota eskaerak:

a) Ondorengo etxebizitzak:

1. Sustapen publikoko Babes Ofizialeko etxebizitzak.

2. Berralokairuak.

3. Logelen alokairuak (logela-eskubidea).

4. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, Udalak etxebizitza-erabilerarik aitortu ez badie.

5. Bizigune programaren barruan dauden alokairu-etxebizitzak.

6. Gaztelagun programaren dirulaguntzak jasotzen dituzten etxebizitzak.

7. Ondorengo taulan jasotako zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak:

a) Cocina en uso, con fuente de alimentación eléctrica o gas, adecuadamente equipada.

b) Cuarto de baño con ducha o bañera.

c) Sistema de agua caliente en funcionamiento, con servicio al cuarto de baño y a la cocina.

d) Instalación eléctrica en uso, de 220 voltios, con su boletín correspondiente.

e) Disponer de agua corriente.

f) Saneamiento con vertido a la red general. De no ser así, deberá justificar el motivo.

g) Ventilación a la calle.

h) Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad convivencial.

Un/a técnico/a del Departamento de Urbanismo elaborará un informe para hacer constar que se cumplen dichas condiciones. Para la emisión de dicho informe, el/la técnico/a podrá inspeccionar la vivienda en cualquier momento, si así lo valora.

Ante cualquier modificación sustancial que se pudiera dar en la vivienda respecto a los requisitos que ha de cumplir, la persona beneficiaria deberá comunicarlo al ayuntamiento en un plazo de un mes desde que se produzca la modificación.

*Artículo 5. Exclusiones.*

Las solicitudes, viviendas o contratos de alquiler que se encuentren en situaciones como las siguientes no podrán beneficiarse de la subvención:

a) Las siguientes viviendas:

1. Viviendas de Protección Oficial de promoción pública.

2. Subarriendos.

3. Arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).

4. Locales utilizados como vivienda, si no se le ha reconocido uso de vivienda por el ayuntamiento.

5. Viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.

6. Viviendas que reciben ayuda económica del programa Gaztelagun.

7. Las viviendas cuyo alquiler (anejos incluidos) supere la cuantía indicada en la siguiente tabla:

| | |
|---|---|
| Herrian orokorrean (Azpian aipatutako guneetan izan ezik) | 600 € / hileko |
| Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta eta Ola-ko hiri-lur guneak (Eranskinetako 1 eta 2 planoetako eremuan sartzen diren etxebizitzak - Eremu gorriaren barruan daudenak) | 550 € / hileko |
| Osintxu (Hiri-lur gunea) | 450 € / hileko |

| | |
|---|---|
| En el municipio en general (excepto en las áreas indicadas abajo) | 600 € / mes |
| Casco Histórico y ámbitos de suelo urbano de Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta y Ola (Viviendas incluidas en la zona marcada en rojo en los planos 1 y 2 de los anexos) | 550 € / mes |
| Osintxu (ámbito de suelo urbano) | 450 € / mes |

b) Ez da onartuko urtebete baino iraupen txikiagoa duen alokairu kontraturik.

c) Bergarako Udaleko hirigintza-irizpideei jarraituz, datozen 10 urteetan botatzea aurreikusten diren etxeetako eskaerak.

b) No se admitirán contratos de duración inferior a un año.

c) Las solicitudes de viviendas cuyo derribo esté previsto en los próximos 10 años, de conformidad con los criterios urbanísticos del Ayuntamiento de Bergara.

EK\CV GAO-I-2021-01232

d) Euren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamentu edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak, ala balego.

Edozein kasutan, dagokion departamendu edo erakundeari helaraziko zaizkie eskaera hauek, interesatuari egoera horren berri emanaz.

*6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.*

Dirulaguntza eskatzeko honako agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera, derrigorrez udalak prestatutako -eredu ofiziala erabilita. F0112 inprimakia.

b) interesatuaren izenean eskaera ordezkari batek aurkezten badu, ordezkaritza agiria F0136 bertan zehaztutako dokumentuekin.

c) Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza-txartelaren fotokopia edo Pasaportea.

Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da.

d) Diruz laguntzea nahi den etxebizitzarena den eta indarrean dagoen alokairu-kontratuaren edo aurre-kontratuaren kopia.

e) Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

f) Estatu mailan etxebizitzaren jabe edo usufruktuarioa ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera egin baino gehienez 30 egun lehenagokoa.

Etxebizitza baten titularkide izanez gero, honako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte:

— Herentzia kasuan, herentziaren onarpen eta partizioaren eskritura.

— Dohaintza kasuan, dohaintza-eskritura.

— Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz, eskualdaketaren eskritura.

— Banantze edo dibortzio sententzia.

g) Bizikidetza-unitateko kide guztien eskaera egin aurreko azken 12 hilabetetako diru-sarreren egiaztagiriak edo eskaera egin ondorengo 12 hilabeterako aurreikusten diren diru-sarreren idatzizko froga agiriak: lan kontratuak, pentsioak, nominak edo beste diru-sarreren agiriak (dagokion erakundeak igorrita).

h) Eskatzailearen eta familia edo elkarbizitza unitatea osatzen duten kide guztien azken Errenta Aitorpenaren fotokopia, edo eskaerarekin batera Bergarako Udalari dagokion erakundean agiri hauek lortzeko baimena ematen dion idatzia.

i) Errenta aitorpenik egin ez badu(te), Gipuzkoako Foru Ogasunak (Toki-Eder plaza, 5 - Bergara) emandako ziurtagiria, non azalduko duen ez dutela errenta aitorpenik egin.

j) Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emana.

k) Betebehar fiskaletan egunean daudela egiaztatzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren ziurtagiriak, ez badute eskaera inprimakian baimena eman udalak egiaztatzeko.

l) Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean daudela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak, ez badute eskaera inprimakian baimena eman udalak egiaztatzeko.

d) Aquellas solicitudes que, por su naturaleza y objeto, debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos.

En todo caso, se dará traslado de estas solicitudes al departamento u organismo correspondiente, comunicando tal circunstancia a la persona interesada.

*Artículo 6. Documentación que se ha de presentar.*

Para solicitar la subvención, deberán presentarse los siguientes documentos:

a) Solicitud, utilizando obligatoriamente el modelo oficial elaborado por el ayuntamiento. Impreso F0112.

b) En caso de que la solicitud sea presentada por un/a representante de la persona interesada, documento de representación F0136, junto con los documentos indicados en el mismo.

c) Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia o pasaporte de cada una de las personas demandantes de ayuda.

Si hubiera menores de edad, se aportará además fotocopia del Libro de Familia.

d) Contrato de alquiler en vigor o copia del precontrato en relación con la vivienda para la que se demanda la ayuda económica.

e) Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente.

f) Certificado de no tener en propiedad ni en usufructo vivienda alguna en el Estado, emitido por el Registro de la Propiedad como máximo 30 días antes de la fecha de presentación de la solicitud, referente a todos los miembros solicitantes de ayuda mayores de 18 años.

En caso de ser cotitular de alguna vivienda, se deberá presentar también la siguiente documentación:

— En caso de herencia, documento de aceptación de la herencia y escritura de partición de la misma.

— En caso de donación, escritura de donación.

— En ambos casos, si se ha realizado venta de la partición, escritura de transmisión.

— Sentencia de separación o divorcio.

g) Respecto de todos los miembros de la unidad convivencial, documentos acreditativos de los ingresos de los 12 últimos meses anteriores a la solicitud o documentos probatorios por escrito de los ingresos previstos para los 12 meses posteriores a la solicitud: contratos de trabajo, pensiones, nóminas o justificantes de otros ingresos (emitidos por el organismo competente).

h) Fotocopia de la última Declaración de la Renta de la persona solicitante y de todos los miembros que componen la unidad familiar o convivencial, o bien, la presentación de un escrito, junto con la solicitud, en el que se autorice al Ayuntamiento de Bergara para que pueda obtener dicha documentación en la institución correspondiente.

i) En caso de no haber realizado la declaración de la renta, certificado emitido por Hacienda Foral de Gipuzkoa (Toki-Eder plaza, 5 - Bergara), donde conste que no la ha realizado.

j) Certificado de vida laboral, expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.

k) Certificados del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa que acrediten que se encuentran al corriente en sus obligaciones fiscales, en caso de que en el impreso de solicitud no se haya autorizado al ayuntamiento para su verificación.

l) Certificados de la Seguridad Social que acrediten que se encuentran al corriente respecto a sus obligaciones con la Seguridad Social, en caso de que en el impreso de solicitud no se haya autorizado al ayuntamiento para su verificación.

EK\CV GAO-I-2021-01232

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatze baldintzak betetzen direla eta baita eskatzaileak Bergarako udalarekin ordainketetan egunean egotearen betebeharra ere betetzen dutela.

*7. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea.*

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik urteko programaren aurrekontua agortu edo gastua konprometitu arte eskatu ahal izango da, eta gehienez 2021eko abenduaren 31ra arte. Dirulaguntza agortuko balitz, horren berri emango da web orrian dirulaguntzen atalean argitaratutako iragarki baten bitartez.

*8. artikulua. Behin-behineko aitorpena eskatzeko aukera.*

Interesatuek aukera izango dute eskaera egiteko errentamendu-kontratua izenpetu aurretik. Horretarako, eta errentamendu-kontratua izenpetu aurretik laguntzaren behin-behineko aitorpena eskatu ahal izateko, 5. artikuluan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira, d) letran aipatutakoak izan ezik. Horren ordez, kontratu-aurreakordioa aurkeztu beharko da.

Eskabidea onartuz gero, pertsona interesdunak hiru hilabeteko epea izango du falta diren dokumentuak aurkezteko, behin-behineko ebazpena jakinarazi den egunetik aurrera.

Dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko ebazpena emango da.

Agiriak ez badira epearen barruan aurkezten, behin-behineko aitorpena baliogabetu egingo da.

*9. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, 39/2015 Legeko 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

*10. artikulua. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea.*

Udal Gizarte Zerbitzuak.

*11. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da hileko alokairu prezioari ondorengo taulan jasotako ehunekoa aplikatuta ateratzen dena eta gehienez ere taulan horretan bertan azkenengo zutabean jasotako mugarekin:

El Ayuntamiento comprobará de oficio el cumplimiento de la condición del empadronamiento así como que se encuentrán al corriente en los pagos para con el Ayuntamiento de Bergara.

*Artículo 7. Plazo de presentación de solicitudes.*

Se podrá solicitar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta que se comprometa el gasto o se agote el presupuesto del programa anual, con una fecha límite máxima hasta el 31 de diciembre de 2021. En caso de agotarse la subvención, se informará de ello mediante la publicación de un anuncio en la página web, en el apartado de subvenciones.

*Artículo 8. Posibilidad de solicitar reconocimiento provisional.*

Las personas interesadas podrán solicitar el reconocimiento provisional de la ayuda con carácter previo a la suscripción del contrato de arrendamiento, aportando la documentación prevista en el artículo 5, a excepción de las mencionadas en la letra d). En su lugar, habrá de presentarse el preacuerdo de contrato.

En caso de resolución favorable a la solicitud, la persona interesada deberá aportar la documentación que falte en un plazo de tres meses a contar desde la fecha de notificación de la resolución provisional.

Una vez aportada la documentación, se dictará la resolución definitiva.

Si la documentación no se aporta en plazo, se resolverá dejar sin efecto el reconocimiento provisional.

*Artículo 9. Subsanación de errores.*

Cuando la instancia o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o esté incompleta, se concederá a las personas interesadas un plazo de diez hábiles –contados a partir del día siguiente al de la notificación– a fin de que puedan subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que se hayan subsanado los defectos detectados, se entenderá que han desistido de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos dispuestos en el artículo 68 de la Ley 39/2015.

*Artículo 10. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Los Servicios Sociales Municipales.

*Artículo 11. Cuantía de las subvenciones.*

La cuantía de la subvención será la que resulte de aplicar al precio del alquiler mensual el procentaje que se señala en la siguiente tabla y con los límites que se señalan en la última columna:

| | | |
|---|---|---|
| Herrian orokorrean (Azpian aipatutako guneetan izan ezik) | % 45 | 270 € / hileko |
| Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta eta Ola-ko hiri-lur guneak (Eranskinetako 1 eta 2 planoetako eremuan sartzen diren etxebizitzak - Eremu gorriaren barruan daudenak) | % 60 | 330 € / hileko |
| Osintxu (Hiri-lur gunea) | % 80 | 360 € / hileko |

| | | |
|---|---|---|
| En el municipio en general (excepto en las áreas indicadas abajo) | 45 % | 270 € / mes |
| Casco Histórico y ámbitos de suelo urbano de Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta y Ola (Viviendas incluidas en la zona marcada en rojo en los planos 1 y 2 de los anexos) | 60 % | 330 € / mes |
| Osintxu (ámbito de suelo urbano) | 80 % | 360 € / mes |

EK\CV GAO-I-2021-01232

Ez dira diruz lagunduko garaje eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, eta ezta kontribuzio edo zerga kontzeptuetan sor daitezkeenak ere, nahiz eta dagokion kontratuan sartuta egon.

Alokairuko hileko kuotatik 50 euroko zenbateko finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude, eta ez bada aurkezten horietako bakoitzaren hileko kostuaren justifikaziorik.

Dirulaguntza bakoitzaren epealdia eskaera egiten den urteko abenduaren 31n amaituko da.

Dirulaguntzen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean aurkezten diren laguntza-eskaerak, baldintza guztiak betez gero, urtarrilaren 1eko atzera eraginezko ondorioekin jasoko dituzte laguntzak abenduaren 31ra arte.

Gainontzeko kasuetan, eskaera egiten den egunetik, baldintza guztiak betez gero, urte horretako abenduaren 31ra arte jasoko dituzte laguntzak.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontutan hartuko dira bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak ondoko taula hauen arabera:

— Bergaran orokorrean alokatzen diren etxebizitzentzako dirulaguntzak ondorengo taularen araberakoak izango dira.

No serán subvencionables los gastos correspondientes a garajes y la comunidad y administración, tampoco los que se produzcan en concepto de contribuciones o arbitrios, aun cuando figuren incluidos en el correspondiente contrato.

